

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### OIONGO UDALA

#### Talde politikoak baliabidez hornitzea

Bo1507271. Oiongo Udalbatzak honako hau erabaki du:

I. Zinegotzi bakoitzak bere postontzi izenduna izan dezala, kanpotik zein barrutik bidal diezaioketen paperezko posta ofiziala jaso ahal dezaten.

II. Talde politikoak bakoitza bere aldetik biltzeko eta herritarren bisitak hartzeko, erabilera partekatuko bulego edo lokal hauez hornitzea.

a. Udaletxeko jendearentzako ordutegian: Udaletxeko 2. solairuan areto bat.

b. Jendearentzako ordutegitik kanpo: Plaza Nagusiko 1ean dagoen aretoa; sarrera, Aldundia kalean.

c. Alkateak zehaztuko du talde politikoen nola erabili toki hori, Bozeramaileen Batzarra entzun ondoren, eta ezinbesteko eginkizunen koordinazioa eta talde bakoitzak duen ordezkaritza maila kontuan hartuz.

d. Ezin izango dira batera egin bilera horiek eta udalaren kide anitzeko organoen bilerak.

III. Udalean eratuta dauden talde politikoei zenbateko bat ematea hileko, bi osagairekin: bata finkoa, 100 eurokoa, guztientzat berdina; beste bat aldakorra, 50 euro zinegotzi bakoitzeko, talde bakoitzak duen zinegotzi kopuruaren arabera. Horiek horrela hona talde bakoitzak jasoko duena:

a) EAJ-PNV udal taldea:  $100 + (50 \times 4) = 300$  euro hilean.

b) Bildu udal taldea:  $100 + (50 \times 2) = 200$  euro hilean.

c) PSE-EE-PSOE udal taldea:  $100 + (50 \times 2) = 200$  euro hilean.

d) PP udal taldea:  $100 + (50 \times 2) = 200$  euro hilean.

IV. Udal taldeentzako diru zuzkidurek baldintza hauek bete beharko dituzte:

e. Diru hori taldearen jardura edo sustapena finantzatzeko baino ez da erabiliko; hala nola, alokairuak, komunikazioak, inprenta, harpidetzak, informazio buletinak, alderdi politikoen eskainitako zerbitzuek eragindako gastuak, ordezkaritza gastuak, langileak kontratatzea...) Inola ere ezingo dira erabili korporazioaren zerbitzura dauden edozein modutako langileei ordaintzeko, eta ezingo dira erabili ondare aktibo finkoen izaera eduki dezaketen ondasunak erosteko ere.

f. Udal taldeek diru zuzkiduraren berariazko kontabilitate bat eraman beharko dute, eta, ku-deaketaren berri emate aldera, udalbatzaren esku utziko dute 2020ko eta 2022ko abenduaren eta 2023ko apirilaren lehen hogeitau egunetan, aurrez eskatu beharrik gabe. Betebehar hori ez betetzeak berekin ekarriko du taldeari eman beharreko zuzkidura bertan behera uztea.

g. Talde bakoitzarentzako zuzkiduraren sortzapena eta likidazioa sei hilean behinekoa izango da. Taldeen osakeran aldaketarik gertatzen bada, hurrengo seihilekoan konpentsatuko da.

h. Zuzkiduraren ordainketa bozeramaileak idatziz adierazten duen banku kontuan egingo da. Banku kontuaren titularrak udal taldea izango da. Taldearen bozeramaileak izendatuko du, orobat, zein zinegotzi izango den taldearen funtsen arduraduna, eta ardura hori onartu egin beharko du; izendapen espresik ez badago, bozeramaileak izango du funtsen ardura.

i. Kontuaren titularra eta funtsen arduraduna izendatzeko gorago aipatutako betekizun formalak bete ezean, ez da sortuko sei hilerik behin jaso beharreko sortzapenerako eskubidea eta, ondorioz, galdu egingo da dagokion seihilekorako zuzkidura jasotzeko eskubidea, baldin eta aurrekontu ekitaldia iraungi eta ez betetzeak jarraitzen badu.

V. Erabaki hau indarrean jartzea, hartu den egunaren hurrengotik aurrera, atzeraeraginik gabe eta korporazioaren agintaldi hau amaitzen den egunera arte.

VI. Erabaki honek berekin dakar 2019ko aurrekontua egikaritzeko udal arauaren III. kapituluko 29. artikulua aldatu behar izatea.

VII. Erabakia jendaurrean jartzea, iragarkia argitaratuta ALHAOn, Araban zabalkunderik handiena duten egunkarietako batean eta udalaren iragarki taulan.

Oion, 2019ko uztailaren 12a

*Alkatea*

*EDUARDO TERROBA*